

SECCIÓN AMENA



LASTERKALARIA¹



Aita seine batzuek
lengo egunean,
ari zirala beren
soroan lanean,
lasterkalari bat zan
pasatu andikan,
esan dan soroaren
aldamenetikan;
eta semeak nola
alako gauzikan
ez baitzuben ikusi
izan oraindikan,
aitari esan sion
besotik elduta:
—aita, chorroch gille bat
dabill erotuta;
bizkarrean ibiltzen
duben errubera,
ankartean dubela
ta gañean bera,
pasa da chimista bat
pasatzen dan gisan,
ain presaz koška jota
iya erori zan;

eta ezpada laister
jaisten gizon ori,
errubera gañetik
beardu erori.
—Ez mutill, ez dek ori
ortik eroriko,
korputza dik lotuba
ongi irukiko;
etzebillek burutik
galduba gizona,
orrek or esperoko
dik lanen bat ona.
Andrés-tegiko Josék,
bizarra mozteko,
labana bi or zeuzkak
beti zorrozteko,
eta oyen ondoren
ukan etorriko,
makina ortarako
zikan ekarriko;
bada maiz nola diran
egoten lan gabe,
or naiko dik gaur egiñ
kuarto batzun jabe.

RAMÓN ARTOLA.

(1) Velocipedista.
